SINATZAILEA
Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2024/05/03

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2024/05/03

ZIGILUA
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua
2024/05/03

**BERAKO ALKATEAREN EBAZPENA, URTZI GARAITA ARZA BERAKO UDALAREN ZERBITZUKO FUNTZIONARIO IZENDATZEN DUENA, MENDIZAIN ETA ZERBITZU ANITZAK LANPOSTUAN ARITZEKO, ETA LANPOSTUA ESLEITZEN DIONA.**

2021eko abenduaren 29an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, hizpide dituena enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak, eta hartan aurreikusten da egitea administrazio publikoetan behin-behineko enplegua egonkortzeko prozesu bat.

Maiatzaren 12ko 129/2022 Alkatearen Ebazpenaren bidez onetsi zen 2022rako lan publikoaren eskaintza, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak eta deialdi bereziak ezartzen dituena, 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera. Aipatu ebazpena 2022ko 95. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, maiatzaren 17koan, argitaratu zen (akats zuzenketa 124. NAOn).

Gero, onetsi zen 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak gauzatzeko Nafarroako Administrazio Publikoetan. Osoko bilkuraren 2022ko urriaren 19ko erabakiaren bidez, toki erakunde hau partez atxikitu zitzaion uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen II. tituluan jasotako erregulazioari.

Azaroaren 11ko 296/2022 Alkatearen Ebazpenaren bidez onetsi zen Berako Udaleko lanpostu hutsak merezimendu-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, 20/2021 legean xedatutakoaren arabera. Aipatu ebazpena 2022ko 231. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, azaroaren 21ekoan, argitaratu zen. Besteak beste, mendizain eta zerbitzu anitzetako lanposturako deialdia egin zen.

**RESOLUCIÓN DEL ALCALDE DEL AYUNTAMIENTO DE BERA, POR LA QUE SE NOMBRA PERSONAL FUNCIONARIO AL SERVICIO DEL AYUNTAMIENTO DE BERA A URTZI GARAITA ARZA, PARA DESEMPEÑAR EL PUESTO DE TRABAJO DE GUARDAMONTE Y SERVICIOS MÚLTIPLES, Y SE LE ADJUDICA PLAZA.**

Con fecha 29 de diciembre de 2021 se publicó, en el Boletín Oficial del Estado la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público, la cual prevé la realización de un proceso de estabilización del empleo temporal de las Administraciones Públicas.

Por Resolución de Alcaldía 129/2022, de 12 de mayo, publicada en el Boletín Oficial de Navarra número 95, de 17 de mayo de 2022 (corrección de errores en BON nº 124), se aprobó la Oferta de Empleo Público del año 2022, que articula los procesos de estabilización y convocatoria excepcional conforme a la Ley 20/2021.

Posteriormente, se aprobó la Ley Foral 19/2022, de 1 de julio, de medidas para la realización de los procesos de estabilización derivados de la Ley 20/2021 en las Administraciones Públicas de Navarra. Mediante acuerdo de Pleno de 19 de octubre de 2022, esta entidad local se adhirió de forma parcial a la regulación contenida en el Título II de la Ley Foral 19/2022.

Por Resolución de Alcaldía 296/2022, de 11 de noviembre, publicada en el Boletín Oficial de Navarra número 231, de 21 de noviembre de 2022, se aprobó la convocatoria para la provisión, mediante concurso de méritos, de vacantes de puestos del Ayuntamiento de Bera correspondientes al proceso extraordinario de estabilización y consolidación de empleo temporal, según lo dispuesto en la Ley 20/2021. Entre otros, se convocó el puesto de trabajo de guardamonte y servicios múltiples.

SINATZAILEA
Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2024/05/03

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2024/05/03

ZIGILUA
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua
2024/05/03

Hautapen-prozesua bideratu eta merezimendu-lehiaketa amaitu ondoren, hautapen-prozesuko epaimahaiak egindako izendapen-proposamenarekin amaitu ere, puntuaziorik handiena lortu duen izangaiak honako hauek frogatzen dituzten dokumentuak aurkeztu ditu: nortasuna, osasun txosten ofiziala, funtzio publikoetan jarduteko desgaituta edo etenda ez egotearen eta Administrazio Publiko baten zerbitzutik bananduta ez egotearen adierazpen solemnea, eta Nafarroako Foru Araubidea errespetatzeko, Konstituzioa eta Legeak onartzeko eta karguaren berezko betebeharrak zintzoki betetzeko zin egitea edo hitza ematea.

Beraz, izangaiak oinarrietan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, eta eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren, bidezkoa da ebazpena ematea, lanpostuaren jabetza hartzeko proposatutako hautagaia izendatzeko xedez.

Horiek horrela, deialdiko 11. oinarria betez, eta erabiliz 7/1985 Legearen 21.1. artikuluan ezarritako eskumenak (lege horren bidez arautzen dira Toki Araubidearen Oinarriak), honako hau

**EBAZTEN DUT:**

1. Urtzi Garaita Arza izendatzea Berako Udalaren zerbitzuko funtzionario, mendizain eta zerbitzu anitzetako lanpostuan aritzeko, eta plantilla organikoan 12. zenbakia duen lanpostua esleitzea. Lanpostu hori C mailakoa da, lanaldi osoa du eta Berako Udalean du destinoa.

2. Izendatutako izangaiak 2024ko ekainaren 3an hartu beharko du lanpostuaren jabetza.

Data horretan, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, lanpostuaren jabetza ez badu hartzen, deialdia egin duen toki-erakundeko funtzionario izateko eskubide guztiak galduko ditu.

3. Ebazpen hau argitaratzea Nafarroako

Tras instruir el procedimiento de selección, y concluido el concurso de méritos con la propuesta de nombramiento efectuada por el tribunal de selección, la persona aspirante propuesta por obtener la mayor puntuación ha presentado los documentos acreditativos de la personalidad, informe médico oficial, declaración solemne de no hallarse inhabilitada ni suspendida para el ejercicio de funciones públicas y no haber sido separada del servicio de una Administración pública, así como juramento o promesa de respetar el Régimen Foral de Navarra, acatar la Constitución y las leyes y cumplir fielmente las obligaciones propias del cargo.

Así pues, presentada la documentación exigida en las bases por parte de la persona aspirante, y comprobado que cumple los requisitos exigidos, procede dictar resolución con el nombramiento de la persona propuesta para que tome posesión del puesto de trabajo.

En su virtud, en cumplimiento de la base 11 de la convocatoria, y en ejercicio de las competencias establecidas en el artículo 21.1 de la ley 7/1985, reguladora de las Bases de Régimen Local,

**RESUELVO:**

1.- Nombrar personal funcionario al servicio del Ayuntamiento de Bera, para desempeñar el puesto de trabajo de guardamonte y servicios múltiples, a Urtzi Garaita Arza, adjudicándole la plaza identificada en la plantilla orgánica con el número 12, nivel C, jornada completa y destino en el Ayuntamiento de Bera.

2.- La persona aspirante nombrada deberá tomar posesión de su puesto el día 3 de junio de 2024.

Si en dicha fecha, y salvo casos de fuerza mayor suficientemente justificados, no tomara posesión, perderá todos los derechos para la adquisición de la condición de personal funcionario de la entidad local convocante.

3.- Publicar la presente resolución en el

Aldizkari Ofizialean, Berako Udalaren iragarki-taula elektronikoan eta Egoitza Elektronikoaren gardentasun ataleko deialdiaren web-fitxan.

Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios electrónico y en la ficha web de la convocatoria en Transparencia de la Sede Electrónica del Ayuntamiento de Bera.

4. Erabaki hau helaraztea lan-aholkularitzari, eta interesdunei jakinaraztea, eta adieraztea horren aurka, aukeran, errekurtso hauetako bat jar daitekeela:

4.- Trasladar la presente resolución a la asesoría laboral, y notificarla a las personas interesadas, significándoles que contra la misma cabe interponer, optativamente, uno de los siguientes recursos:

a) Berraztertzeko errekurtsoa, egintza eman duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita.

a) Recurso de reposición ante el órgano autor del acto en el plazo de un mes, a partir del día siguiente al de su notificación.

b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, jakinarazpena egin eta hilabeteko epean.

b) Recurso de alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra en el plazo de un mes desde la notificación.

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzendua Nafarroako Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko organo eskudunari, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

c) Recurso contencioso-administrativo ante el órgano competente de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa de Navarra, en el plazo de dos meses desde el día siguiente al de notificación de la resolución.

5. Horren berri ematea Udalbatzaren Osoko Bilkurari, egiten duen lehenengo ohiko bilkuran.

5.- Dar cuenta al Pleno de la Corporación en la primera sesión ordinaria que celebre.

Beran, dokumentu honen sinadura digitalaren egunean.

En Bera, a la fecha de la firma digital del presente documento.